

Z Zurea da hitza • info**Loatzo Musika Eskolaren inguruan**

Eskola honek ohitura du ikasturte berrirako plaza aseguratzen matrikulazioa ekainean kobratzea. Ordura arte guztia ongi, baina zein izan zen nere sorpresa irailean beraie dagokien eguna eta ordua ipintzen dutenean inolako kontsultarik egin gabe. Nere kasuan beraiek inposatutako ordua ez zetorkidan ongi beraz baja ematea pentsatu nuen. Kostata eman zidaten baja baina matrikulako 30 euroak ez zizkidaten bueltatzen. Zer iruditzen zaizue zuei hori? Neri behintzat ez zait juxtua iruditzen, ziur nago eskola honek lan polita egiten duela ikasleekin, izan ere, hori bistan dago, baina, hori bai, gaizki eginda dagoena gaizki dago.

Iurako ama bat.

Aste Santuan Tolosan gauza gutxi egiteko

Igaro berri den Aste Santuan Tolosan geratu denarentzat, egia esan, ezer gutxi zegoen egiteko. Ez dute ekitaldirik antolatatu, eta herria ia hilik zegoela esan daiteke. Egia da jende pila bat izan dela herritik kanpo oporretan, baina asko izan dira, hemen bertan geratu direnak. Horientzat edota kanpotik gurera datozenentzat zer bait antolatzeari proposatzen dut.

Tolosarra.

Asuncionerako bidez

Noiz irekiko dute Asuncion Klinikara igotzeko bidea? Denbora asko daramatzate obrekina eta noiz amaituko diren jakin nahi dut, oso arriskutsu baitago.

Elena.

E Eztabaida • info**Azkenaldian emakumeenganako indarkeria kasuak areagotzen ari dira, eta bereziki gazteengan. Zergatik uste duzu dela hori?**

■ **Mikel.** «Niri behintzat oso deigarria egin zait azkenaldian notizien protagonista herritar gazteak direla ikustea. Zer ari da gertatzen? Heziketa kontua da dena nire ustez, hortik hasi behar da lanean».

■ **Arantxa.** «Ni ere bat nator aurreko iritziarekin. Hezkuntzan ari gara gaur egungo gizartearen huts egiten, edo huts egin da epe batean behintzat. Izan ere bolada bat pasa dugu, non haurren hezkuntzari ez zaion garrantzia handiegirik eman eta guztia eskolen menpe utzi den. Orain, ordea, badirudi, guraso gaz-

teak hasiak direla konturatzen zein garrantzitsua den haurrekin ala gaztearekin ahalik eta denbora gehien igarotzea».

Nola nabaritzen ari zara krisia?

■ **Naiara.** «Nire inguruan beldur handia nabari dut. Hainbat lagun lanik gabe geratu dira, eta horietako batzuk etxea ordaintzen, beraz, beldurtzeko modukoa da. Giroan ere, dezente nabaritzen da krisiarena, oso barneratuta baitu jendeak ezin duela diru gehiegirik gastatu. Nire kasuan, egia esan, ez dut gehiegi nabaritu. Zure lanean ez baduzu ezer nabaritu, eta hipotekarik ez baduzu normala da. Egia dena da egoera ez dela xamurra askorentzat, eta okerrena ez dakigula noiz arte iraundo duen bolada honek».

■ **Olaia.** «Nik pertsonalki ez dut nabaritu, lana ez zaidalako falta, baina inguruan badituzte ezagunak eta lagunak langabezia geratu direnak. Oso gogorra da hauek ikustea. Beraz, beldurra sartu zait eta gutxiago gastatzen ari naiz, nahi gabe. Hala ere, uste dut oraindik okerrera egingo duela honek eta oraindik gehiago sufritu beharko dugula».

■ **Kepa.** «Egoera nik oraindano bizi izan dudana txarrena da. Nire enpresan jende pila bat bota dute kalera, ez baitago irabazirik, eta ondorioz ez dago dirurik soldata guztiak ordaintzeko. Penagarria da, askok haurrak dituztelako eta etxea ari dira ordaintzen. 40 urte inguruko jendearentzat orain lanik gabe geratuta, gero oso zaila izango dute lana aurkitzea. Beraz, egoera txarra da, eta gainera agintariek ez dute ezer egiten».

A Argazki zaharra**Garai bateko Aste Santua**

TOLOSALDEA • Aste Santuko oporraldia pasa den astelehenean bukatu zen gehientzat, eta gaur gainontzekoentzat. Erligioarekin zuzen zuzenean loturiko jai hauek prozesioak izan dira betidanik nabarmentzekoak. Gurean, gaur egun ez bezala, lehen oihartzun eta parte-hartze handia izaten zuten prozesioek. Gaur egun Segura edota Azkoitia bezalako herrietan dira bereziak eta jarraipen handia izaten dute, ekintza erlijioso baino ez izatetik, turistiko izatera ere igaro direlarik. Irudian, 1944. urteko apirilaren 6ko argazkia ikus dezakegu. Tolosan, Ostegun Santuko prozesioa da. IESUS ELOSEGI 1907-1979

ARANZADI FOTOGALERIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Eguzkiaren eraginez giro polita izan da nagusi azoka egunean

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak asko animatu zieten Tolosaldeko kaleak. Bisitari eta erosle dezente ikusi ahal izan genituen mahaietan, giro polita sortuz. Egunduek auririk ere eragin nabarmena izan du eskaintzaren gan, bai kopuruan eta kalitatean ere, eta datozen egunetan ere nabarituko dugu eragina.

Barazki berrenda adibidez, oso hobetua ikusten ari gara egunduek. Negukoak oraindik aukeran daude eta oso egoera onean, eta udaberrikoak, zainzuria, erremolatxa edo eta tipulina kasu, oso aukera ona osatzen dute.

Zerrenda perretxikoekin osatu zen atzo. Zizak, 30 bat kilo, onddokak, 20 bat kilo, eta mortxelarekin 10 bat kilo, osatu zen, eta pixkanaka, eskaintza gorantz dijoala, prezioak beherantz doaz.

Berdura Plazan ere alaitasun haundia somatu genuen. Apaingariko landare asko daude dagoeneko, eta pixkanaka eskaintza haunditzen ari dira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Mer.	Gares.
Landareak		
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4,00
Xarbeta	4,00	6,00
Krisantemoa	12,00	20,00
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Ziza	12,00	60,00
Mortxela	29,00	-

Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	2,00	4,00
Porrria	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	-
Baina	4,00	6,00
Kalabaza	1,50	3,00

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	2,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500gr)	3,60	-
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	18,00
Ardi-Behi Gazta	11,00	-
Behigazta	8,00	9,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Aza	2,50	3,00
Letxua	1,00	-
Intxaurrea	4,00	6,00
Mermelada	3,00	3,60

Dispertsioa; heriotza zigorra; 20 urte; porrota

» Iritzia

Jon Ijurko
Etxerat-eko kidea

Arjeleko elkarriketek 1989an porrot egin eta bi asteetara aplikatu zuten era masiboan. Mugica Herzog Orduña espainiar gobernuko Justizia Ministroa, egunduek «Herriaren Defendatzailea» dena, izan zen politika honen bultzatzaile nagusia. Bidean, PNVren ezinbesteko laguntza topatu zuten: Arzallus, Ardanza, Torontegui, Atutxa eta Guevara. Baita garai haietan Madrilén EAren diputatua zen Joseba Azkarragarena ere.

20 urte pasatu dira erabaki politiko krudela, ankerra eta bihotzgabea martxan jarri zutenetik. Jose Antonio Ardanza, EAeren Lehendakaria zenean, hitzaldi bat ematera etorri zen behin Tolosaldeko Kultur Etxera. Jose Antonio Ardanzak anikilazio politika hau txalotu zuen, zera gaineratuz: horrelako espetxe politikak lortuko zuelako presoen barne askatasuna, EAren atzaparretatik aldentzeko aukera izango zutelakoan; beraz, aurrerapauso azkarraren eta sendoa izango zela. Lotsarik gabe sendeei politika horrekin bat egiteko eskatu zien. PNVren ordezkari honen hitzak oraindik go-goan dituzte Tolosaldeko Etxerat-eko (Sendeei orduan) lagunek.

20 urte bete dituzte beste alde batetara begira, giza eskubideen errespetuaz hitz egiten, euren ahoa betetzen dutenek. Guk memoria galdu dugula pentsatzen al dute? «Carcel o reinsercion» deitu zioten PSOEk eta PNVk martxan jarri zuten politika hiltzaile honi. Zertara joaten ziren Egibar jauna eta bere komisarioak Salto del Negro espetxera? Ze atziki jarri sufrimendu guzti honi? Nola definitu estatuek, PSOEk eta UMPk, etekin politikak lortu asmoz sortarazten dituen sufrimenduari? Terrorismoa? Biolentzia? Xantaia?

Gaurko egunean bezala, orduan ere, komunikabideek bozgorailu lana egin zuten. PSOE, PNV eta Ajuria-Eneako itunaren aplikat-

ure lana: preso politikoan eta sendeen indarrak xahutu nahian. Baina, sakabanaketaren kate-begi hau ere... euskal gizartearen nahiak puskatu egin du.

Sakabanaketak edo dispertsioak 20 urte bete ditu.

Euren helburua? Euskal Preso Politikoen Kolektiboa suntsitzea, erreinserzioaren aitzakipean, eta sende eta laguneei zigor gehigarri bat ezartzea.

Erarik bortitzenean aplikatu zuten: trasladoak uharteetara, Afrika; bizi baldintzarik gogorrenetan eta berezietan; jipoiak eta funtzionarioen mehatxuak: eguneroko oia.

Gure sendeak eta lagunak sakabanatzearekin nahikoa ez eta baktartzeak, isolamenduak, umilazioak, jipoiak, komunikazioen etengabeko interbentzioa, intimitate falta... gure sende eta lagun preso politikoa subjeto politiko gisa anulatu nahi dituzte. Horregatik ez dituzte askatzen nahiz eta ezarritako kondena beterik eduki. Sufrimenduari amaigabeko katea da. Etekin politikak lortu nahi dituen giza sufrimenduan arda-

tutako espetxe politikarena. Lehene 20 urtez, orain 30ez, eta bihar 40 urtez luzatuko den sufrimendua.

Xantaia ikaragarria suposatzen du sakabanaketak. Euskal preso politikoen kontrako xantai pertsonal eta kolektiboa, sende eta lagunuen aurkako xantaia pertsonal eta kolektiboa eta baita ere Euskal Herriko mugimendu independentista osoaren aurkako xantaia, Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatu nahian.

Ondorioa? 37 hildako. Horietatik 21 preso politikoa: Urkizuko Mikel Lopetegui; Villabonako Mikel Zalakain eta Amarozkoko Esteban Esteban Nieto.

16 hildako bisita egitera zihozten sende eta lagunak: Amarozkoko Leo Esteban Nieto.

Sakabanaketaren ondorio larriaren dira. Erabaki politiko bate-tik sortutako neurri errepresiboko kriminal baten efekturik latzenak.

Bidea ez da erraza izan. Baina hain gertakari larriek, indarez betetuz gaituzte, baita aurrerantzean, 20 urte hauetan gertatu den moduan, sakabanaketari ezetz esateko. Etengabe ezetz esateko. Sakabanaketak porrot egin du.

Ez ditu hasierako helburuak bete. Min emateko gai izan den arren. 20 urte hauetan, espainiar eta frantziar estatu-takotako kartzuletan ehunka euskal herritar sartu eta sakabanatu dituzte. Baina ez dute euren nahi bete. Senideok eta lagunok maitasuna eramaten jarraitzen dugu eta duintasunez politika anker eta kriminal hau salatzen jarraitzen dugu.

Sakabanaketaren helburuek gogortu dituzte: bizi osorako zigorra eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten preso politikoa ez askatuz.

Baina guk honi guztiari ezetz esaten jarraituko dugu, hau guztia salatzen jarraituko dugu, oztropo guztien gainetik. Bere helburuetan porrot egin duen sakabanaketari ezetz esango diogu. Behin eta berri. Irmotasunarekin eta duintasunarekin.

Gure sendeak eta lagunak maitate ditugulako, guretzako gure bizitza direlako, astero-astero bisitak egiten jarraituko dugu. Aurrera jarraituko dugu: aurrera. Gure sendeak eta lagunak etxera eta bizirik bueltatu artean.



Dispertsioaren aurkako eskualdeko ekitaldia egin zuten ostegunetan Villabonan. Argazkian, dantzarien saioa. I. GARCIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxek, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 94 46 04 (Irene) / 695 70 82 71 (Itsaso).

SALGAI

■ **Furgoneta.** Volkswagen Transporterra salgai. Interesatuek deitu 646 48 88 77 telefono zenbakira. ■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran

sendotuz eraberritu eta estreintzeko, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukera. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27, 646 1114 85 eta 609 2183 41. estanga@wanadoo.es.

BESTERIK

■ **Txakurkumea.** Bi hilabeteko txakurkumea oparitzen da. Telefono zenbakia: 618 25 49 71.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Dantzari gaztetxoek Agurra eskaini zioten bazkaldu aurretik. Mahaien inguruan Olaberriaren hainbat argazki ikus zitezkeen, bai gaur egungoak, baita txikia zenekoak ere. N. URBIZU

Olaberria txirrindulariak merezitako omenaldia jaso du herritarren eskutik

Ikaztegieta » Trikipoteoa egin ondoren, plazan hainbat opari jaso zituen, eta ondoren 84 lagunek arkupean bazkaldu zuten.

NEREA URBIZU

Merezitako omenaldia egin zioten atzo Ikaztegietakoa herritarrek Leire Olaberriari. Batez ere azken urtean egindako lanarengatik egin diote, izan ere, pista txirrindulariak Pekingo Olinpiar Jokoetan

brontzezko domina eskuratu zuen (2008an). Kirolari oren amets-tako bat gainera, lortu du: Olinpiar Jokoetan domina bat irabaztea.

Hainbat opari jaso zituen txirrindulari handiak: herritar gazte-xoen aldetik Agurra eskaini zioten; ondoren, Udalaren eskutik, herriko bertso eskolakoek prestatutako bertso batekin egindako plaka bat eman zioten; opari bat ere jaso zuen ostalarien partez, eta noski, lore sorta eder bat ere bai. Horrez gain, herritarren partez, idatzi bat irakurri zioten, bere kirol

ibilbidea, gogoratuz, goraipatuz eta Ikaztegietakoa herriaren izena munduan zehar zabaltzeagatik eskerrak emanez. Kirolarekiko zale-tasuna eta balioa betidanik erakur-tsi du Olaberriak, eta hori ere aipa-tu nahi izan zuten herritarrek.

Trikipoteotik plazara

Trikipoteoa 13:30a aldera hasi zu-ten, lehenik ostatura joanez eta gero, Toki Alai tabernara abiatuz. Berez bazkaria 14:00etan zen has-tekoa baina trikipoteoa zertxobait luzatu zen. Edurne eta Eneritz tri-

kitilarien atzetik lagun talde polita elkartu zen azkenerako.

Olaberriak plazara agertu ziren guztiei eskerrak eman nahi izan zizkien, eta noski, «bazkarian ere ondo pasatzeko». Giro bikaina ze- goen orduan, 14:30a aldera eta eli- zako arkupean prestatu zituzten mahaiaik eta guztira 84 bildu ziren. Beraz, ez zuten kirolerira joateko beharrik izan.

Bazkariko mahaien aurrean Leire Olaberriak utzitako hainbat argazki zeuden, bai txirrindulari profesionala denekoak eta baita



84 lagun bildu ziren bazkalteko. N. U.

txikitako hainbat ere: ikustera ger- turatzeko gogoia ematen zuen, du- darik gabe. Askok ikusi nahi izan zituzten argazki hauek...

Biharko zer, eguraldi ona?

Pello Zabalen Eguraldia beti airean liburuan

Eguraldia antzemateko sekretuak argituko dizkizu Pello Zabalak
Bizitzako liburu naturalari ikasitakoak ekarri ditu
Pello Zabalak liburu honetara

Pello Zabala
"Luzatu bizitza, zehatu eguraldi-
prophetia. Batez ere lurreko behar-
naturak eta eguraldiaren egarritasuna eta
eguraldiaren eguraldiaren bizi-
zabala natural, satorriko
probak gaitu"

Babeslea
kutxa

AUKERA EZAZU.
BIZI EUSKARAZ
berria



Eskolarteko txirrindularien proba

ALEGIA » Languarre Txirrindulari taldeak antolatuta, Alegian atzo Eskolarteko Txirrindulari proba izan zen. Alebinak eta infantilak aritu ziren bertan, Larraitz au- zoan barna. Kilometro eta gutxiko bidea egin behar

izan zuten hainbat alditan: alebinek sei eta infantilek 12 (ia 13 kilometro). Neska batzuk ere ibili ziren bizikleta gainean. Ordiziako Rural Kutxa, Oriako, Andoaingo eta Urnieta Buruntzape taldeak aritu ziren. n.u.

Artelanen bidez eman diote hasiera natur jardunaldiari


Tolosa » Ostiralean inauguratu zuten Naturaldia 09; artea izan zen nagusi, batetik, Kultur Etxearen fatxada apaindu zuten eta bestetik, Aranburuko erakusketa ireki zuten.

REBEKA CALVO

Abian da jada Naturaldia 09 eta inoiz baino artistikoagoa izan da, gainera inaugurazioa, izan ere *Artea Kalean* izenpean tolosaldeko bederlatzi artistek eman zioten hasiera hilaren 27ra arte iraungo duten natur jardunaldiari.

Triangulotik pasa denak seguru ikusi dituela Kultur Etxeko fatxada estaltzen dituzten artelanak. Obra hauek bederlatzi artistek Naturaldia 09ko kartela osatzeko eginkoak dira eta horrela inauguratu zuten Naturaldia 09 ostiral iluntzean; Kultur Etxeko fatxadako obrak jarri eta hauetariko bakoitzaren 50 kopia jendarteana banatuz.

Lanak Mariano Arsuaga, Idoia Eloseg, Iñaki Epelde, Miren Gonzalez, Nisa Goiburua, Koldobika Jauregi, Maria Cueto, Sükru Karakus eta Jose Luis Longaronenak dira eta hauetako batzuk, gainera, Triangulon izan ziren ostiralean euren lanak banatu eta sinatzeko. Jende asko gerturatu zen lanak



Bederlatzi artistek egindako lanen kopia banatu zituzten eta Aranburun *Agua Tinta* erakusketa inauguratu zuten. R. CALVO

ikusi eta bide batez, etxerako kopia bat hartzera. Artistek euren esker ona agertu zieten bertan ziren herritar zein agintariei. Naturarekin eta ingurugiroarekin duten harremana islatu dute lanetan eta baita dituzten kezkek ere.

Naturaldia 09ri hasiera emateko aurrera, hala ere, Jokin Azkue alkateordeak izan zuen eta honek tolosar guztiei jardunaldietako ekitaldi desberdinetan parte hartzerako gonbidatu zien.

'El Roto'ren erakusketa

Trianguloko ekitaldia eta gero guztiak Aranburu Jauregiara joan ziren, izan ere, bertan jardunaldiak maiztazaren 17ra arte ikusgai izango den *Agua Tinta* erakusketa inauguratu zuten.

Erakusketan urarekin zerikusia duten 47 bineta ikus daitezke. Lanak Andres Rabago, *El Roto*, Madridilgo artistarenak dira eta Tolosan baino lehen Zaragozako Expon izan ziren ikusgai. Marrazkiei umorea daria, nahiz eta artistaren ustez umorea baino gehiago satira erabiltzen duen.

Jardunaldietako antolatzaile den GestoNaturako Shole Martinek esan zuenez, binetak, «umore adimentsu» baten bidez «ikusleari natura transformatzeko erabiltzen dugun zentzugabekeriaren zentzua agertzen dio». «Kutsadura, urak eragindako borroak, lan hidraulikoak, uraren erabilpen anitzak, ingurumenean eragindako kalteak... Uraren arloa ikuspuntu desberdinetatik jorratu du artistak 47 bineta hauetan», gaineratu zuen Martinek.

Madridarrak Francoren diktadura iraun zuen bitartean Opsi ezina erabili zuen bere marrazkiak *Triunfo* eta *El Jueves* bezalako aldizkarietan kaleratzeko. Egun *El País* egunkarian aritzen da.



Kandelak abusu sexualak salatzen

TOLOSA » Gipuzkoako Abusu Sexualak Jasandakoen Elkarteak (GASJE) ekitaldia egin zuen atzo Triangulon «haurtzarora lapurtu dietenei» euren elkartasuna agertzeko. Kandelak piztu zituzten eta 12:00etatik 14:00etara stand bat ere jarri zuten herritarrek ere «gertaera gogor hauen» kontrako jarrera erakustera gonbidatzeko. R. CALVO




DBH amaitu ondoren	Batxilergoa Ikasi ondoren	Goi-Mailako Zikloen ondoren
<p style="font-weight: bold; color: #e91e63;">Heziketa Zikloak Erdi-Maila</p> <p>2 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mekatronika • Makineria eta linea eremubideen instalazioa eta mantentzeak elektronikarantz <p>Titulua: Teknikaria</p>	<p style="font-weight: bold; color: #e91e63;">Heziketa Zikloak Goi-Maila</p> <p>2 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu mekanikoen garapena • Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa • Industri ekipoen mantentzeak <p>Titulua: Goi-mailako teknikaria Proiektuetan oinarritutako Informatika Informatika Eleanitza</p>	<p style="font-weight: bold; color: #e91e63;">IMH Ingeniaritza Eskola</p> <p>3 urte eman behar dira</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3 urteko lan esperimentala • Informatika eremuko lanak • Bolonikako lanen egokitzutako titulua <p>Titulua: Ingeniaritza Ikasi eta lan bidezko metodologi informatika eremuko</p>
ATE IREKIAK (zikloak eta ingeniaritza):		
Apirilaren 25ean, larunbatean – goizeko 11:00etan		
		
IMH - Azkue suzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa, 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es		

Veleta Aiz-Orratz elkarteak 75 urte betetzen ditu maiatzaren 12an; urteurrena ospatzeko ekitaldiz beteriko egitaraua antolatu dute urte osoan.

Festa egiteko aitzakia handia

INIGO TERRADILLOS

Z iur ospakizunerako edo festarako ia aitzakiarik ez dutela behar, baina, oraingo honetan, pisuzko arrazoia dute Veleta Aiz-Orratz elkartearen festa handia egiteko, izan ere, 75 urte betetzea ez da egunero gertatzen den zerbait. Hortaz ohartuta, festa polita antolatu dute urteurrenaren behar bezala ospatzeko, baina horretaz gain, urte bukaerara arte askotariko ekitaldiak antolatu dituzte.

Maiatzaren 17an egingo dute elkartearen festa. Egun hori mezarekin hasiko dute, eta hamaiketakoa eta toka ere izango da. Jai giroa poteoarekin batera hasiko da gero, eta bazkarian izango du jarraipena. «Gainerako elkarreetako kideei gonbidapena luzatzen diegu gurekin batera egun hau ospatzera etor daitezten», azaltzen dute Aiz-Orratzeko kideek. Egun horren aurretik, ordea, maiatzaren 12an, beteko dituzte elkarteak 75 urte. Egun horretan inauterietan, azken 25 urteetan erabili dituzten moztorroekin eta argazkiekin erakusketa jarriko dute Kultur Etxean.

Arraun desafia

Beste egun handia maiatzaren 31 izango da. Arrauna izango da egun honetan protagonista; batetik, TAKeko arraunlariak eta Oriokoak lehiatuko dira, eta bestetik Emendek eta Aiz-Orratz elkarteak bazkideak ariko dira nor baino nor; «Garai batean lagun arteko lehia izaten genuen bi elkarten artean eta hori errekupeatu asmoz, bota diegu desafia; elkarteak bazkide-

ek hartuko dute parte, 50 urte dituzte batez beste, beraz, berezia behintzat izango da», diote. Egun hori Altzerri eta Ramon Amonarri izango dioten omenaldiarekin osatuko dute, «arraunaren alde egin duten lana eskertzeko modua izango da».

Kirola eta musika

Denetarik izango da urteurrena dela-eta antolaturiko egitarauan. Ekainerako, esaterako, xake txapelketa antolatu dute, eta txirrindularitzari buruzko hitzaldia ere izango da. Zuzeneko musikaz gozatzeko aukera ere izango da, urrirako piano eta txistularien kontzertua antolatu baitute. Kabi Alai —75 urte betetzen ditu aurten ere— eta Aiz-Orratz elkarteek elkarrekin antolaturiko mendi ibilaldiak eta mendiari buruzko hitzaldiak osatuko dute egitaraua.

Arrauna eta Inauteriak

Inauterietako ekitaldi jakin batzuekin lotzen dugu, bereziki, Aiz-Orratz elkarteak: Haur Jaialdia, Haur Danborrada, txaranga eta konpartsa. Gaztetxoei arreta gehien eskaintzen diena dela ere esan daiteke.

Inauteriez gain, arraunean ere asko nabarmendu da urtetan elkarteak, eta horren adierazle elkartearen gordetzen dituzten garaikurrak, Euskal Herriko eta Espainiak txapelketatan irabaziak.

Egun 100 bazkidek osatzen dute elkarteak, eta osasuntsu dagoela esan daiteke, «urteurrenaren behar bezala ospatzeko gogotsu».



Aiz-Orratz txaranga 1943. urtean. Esteban Eloa zen zuzendaria. HITZA



Aiz-Orratz elkarteak arraunlariak, Santanderren, 1977an. Espainiako bandera irabazi zuteneko une bat. HITZA



Aiz-Orratz elkarteak hainbat kide, 75. urteurreneko ekitaldiak aurkezten. IT.

» EGITARAUA

■ **Maiatzak 12.** Azken 25 urteetan elkarteak Inauterietan erabilitako jantzi eta argazkien erakusketa, Kultur Etxean, 19:30ean. Egun honetan betetzen ditu elkarteak 75 urte.

■ **Maiatzak 17.** Elkartearen festa eguna: 10:00etan meza, Santa Klaran; ondoren, hamaiketakoa eta toka elkartearen bertan, Tolosa Txistulari Bandak alaituta; ondoren, poteoa Iraunkorrek txaranga-garen laguntzarekin; 14:30ean bazkaria Fronton jatetxean.

■ **Maiatzak 31.** Estropadak: desafia Emendek eta Aiz-Orratz elkartearen artean; TAKeko (Tolosaldeko Arraun Kluba) kategoria guztietako kideak ere ariko dira; ondoren, herri bazkaria Zerkauaian, parte hartzen duten arraunlariekin eta izena ematen duten guztiekin; Altzerri eta Ramon Amonarri omenaldia egingo zaie.

■ **Ekainak 6.** Xake txapelketa 09:00etan hasita elkarteak; ondoren, hamaiketakoa eta sari bana-keta.

■ **Ekainak 18.** Txirrindularitzari buruzko hitzaldia, Xabier Usabiagaren eskutik, Kultur Etxean, 19:30ean.

■ **Urriak 7.** Piano eta txistularien kontzertua, 12:00etan (lekua zehaztu gabe oraindik). Pianoa Jon Labaien elkarteak bazkideak joko du, «Euskal Herriko txistulari onekin batera».

■ **Urriak 11.** Mendi ibilaldia Kabi Alai eta Aiz-Orratz elkarteak elkarrekin, 09:30etan hasita. Ibilbidea: Plaza Zaharra - Uzturre - Belabieta - Zerkausia. Hamaiketakoa izango da parte-hartzaile guztientzat.

■ **Urriak 22.** Kirol hitzaldia Asier Izagirre mendigoizale tolosarraren eskutik. Igo dituen azken zortzimirakoei buruz ariko da.

E Elkarrizketa

UNAI ZENDOIA, OSKAR PORRAS ETA ARKAITZ LASA Mendizaleak



ESTI EZEIZA

«Zortzimilakoek badute bere konpromisoa, dena zailagoa da»

Mendia» Hiru mendizale gipuzkoarrek Gasherbrum I eta II igoko dute uda honen hasieran; beraien lehen zortzimilakoa izango da.

ESTI EZEIZA

Gasherbrum 2009, honela izendatu dute Unai Zendoiak (Villabona, 1981), Oskar Porrasek (Donostia, 1975) eta Arkaitz Lasak (Andoain, 1979) Pakistango Karakorumean 8.000 metroko bi gailur egiteko duten proiektua. Hasteko, Gasherbrum II (8.035 m) igoko dute, eta ondoren Gasherbrum I (8.068m). Ekainaren erdialdera joango dira Pakistanera, eta dena ondo joanda, uztailearen erdialdera gailurra egitea espero dute. Proiektuaren berri emateko webgune bat egin dute www.gasherbrum2009.com eta kamisetak ere jarri dituzte salgai.

Nondik sortu zen proiektu hau? Hiruontzat ere, zuen lehen zortzimilakoak izango baitira...

Unai Zendoia: Oskar eta ni 2007an Nepalen egon ginen. Ama Dablam igo genuen. Ia 7.000 metro ditu honek, eta jaisten ari ginen bezala, berririo beste bat egiteaz hitz egiten hasi ginen. Hasiera batean, G-1 eta G-2 beharrean, beste gailur batzuk izotzean pentsatu genuen, baina azkenean hauek egitea erabaki genuen.

Arkaitz Lasá: Ni berriz, ia zko udan Pamierren izan nintzen zazpimilako bat igotzen. Hortik itzuleran beste bat egitea buruan nuen jada. Ondoren, beraiek joatekoak zirela ikusita, eta garaia ere niretzat egokita, eta garaia ere niretzat egokita zela, proiektura gehittea erabaki nuen.

Zergatik aukeratu dituzue Gasherbrum I eta II-a?

U. Z.: Altuera aldetik, zortzimilakoaren artean baxuenak dira. Hasiera batean, G-2a bakarrik egiteko asmoa genuen, baina azkenean, bata ere egitea erabaki dugu.

Gainontzekoetatik, zortzikoetara baldintzak asko aldatuko dira.

U. Z.: Bai noski, batik bat denbora. Hara joateko oraingoan, bi hilabete hartu behar ditugu, eta aurrekoetan, bakarra edo bost aste. Zortzimilako batek denbora gehiago eskatzen du.

Nola aurreikusten duzue izango dela espedizioa?

U. Z.: Planifikazio bat egin dugu, baina gero han ikusi beharko dugu mendia zein baldintzetan dagoen. Lehendabizi G-2ra joango gara, teknikoki errazagoa baita. Hau egin ostean, G-2ra bideratuko gara.

Zuen aldetik antolatut al duzue espedizioa?

U. Z.: Ajentzia baten bitartez lortzen ditugu baimenak eta agiriak. Honekin hitz egiten dugu, eta berari esaten diogu zenbat denboran egongo garen oinarritzko kanpamentuan. Guk esaterako, 33 egun igaro ditzazkegu bertan. Azken batean, egun gehiago igarotzen baditugu, janari gehiago behar dugu. Guk harremana dugun ajentziak, Pakistaneko beste bat azpikontratatu du.

Oskar Porrás: Normalean jende

gehienak horrela egiten du. Bertako edo hango ajentzia bat kontratatzen du, zuk bakarrik ezin baituzu dena egin. Esaterako, 30 zama-ketari inguru beharko ditugu guk.

U. Z.: Oinarritzko kanpamentura arteko bidean laguntzen digute beraiek. Gero guk bakarrik jarraitzen dugu.

Zeintzuk dira mendi hauen ezau-garriak?

U. Z.: G-2an hiru kanpamentu egiten dira normalean. Batzuetan, lau, baina gure asmoa hiruarekin egitea da. Lehendabizi aklimatazio lanak egin beharko ditugu. Lehendabiziko kanpamentura igoko gara, hau prestatuko dugu eta berriro oinarritzko kanpamentura jaitsiko gara.

A. L.: Gainera, bi mendientzako oinarritzko kanpamentura eta lehenengo berdinak dira.

A. L.: Lehendabizikoaren ostean bigarrena eta hirugarrena muntatuko ditugu eta hauek denak prest ditugunean beherantz jaitsiko gara berriro deskantsatzeko. Hone ostean, gorantz abiatuko gara. Bestalde, suposatzen da, G-2a igotzen dugunean eta jaisten garenean, aklimatatuta egongo gara G-lagotzen hasteko, eta hori ekingo diogu. Igotzen goazen heinean kanpamentuak antolatzen joango gara, modu arinago batean.

O. P.: Hori da lehendabiziko plan-teamentua, baina agian G-2an elur asko dago eta G-1 berriz hobeto da-gonez hara joaten gara.

Ekaina-uztailean, zein egoeratan suposatzen da egongo direla mendiak?

O. P.: Iaz, G-2a egin zuten eta bata ez. Duela bi urte berriz, G-2a ezin

izan zuten jendeak igo, eguraldi txarra egiten baitzuen.

U. Z.: Hara joateko sasoi onena hori da, baina ezin da jakin erabat ziur zein egoeratan egongo den.

Material asko beharko duzue espedizio honetarako.

A. L.: Bai, asko, eta egia esan, oraindik ez dugu dena bildu.

U. Z.: Traste dezente eraman beharra dauzkagu, eta horietako asko lehendik ez geneuzkagun. Mendi baxuagoak egiteko balio dugun materiala badaukagu, baina zortzimilako bat egiteko beste gauza batzuk ere behar dira.

A. L.: Batik bat, hango baldintza klimatikoetara egokitzeko materiala behar dugu. Zaku bereziak, botak, kanping indartsuagoak...

Zein uste duzue dela espedizioaren zailtasunik handiena?

O. P.: Nire ustez, aurretik, dena prestatze eta antolatze hori. Aurretik egin beharreko lana handia da.

A. L.: Niri, altuera horietara ongi egokituko garen edo ez jakiteak ematen dit kezka. Ez dakigu nola erantzungo dugun.

A. L.: Oskarrek esan bezala, pres-taketa hori ez da erraza. Asko entrenatu beharra daukagu, eta denbora asko beharra daukagu. Bestalde, gauzak antolatzeak, ajentziarekin lotzeak... denbora asko kentzen digu.

Nola entrenatzen zarete?

O. P.: Mendira asko joaten gara.

U. Z.: Bizikletan asko ibiltzen gara eta korrika ere bai.

A. L.: Azken batean erresistentzia landu beharra daukagu eta indarra. Garrantzitsua da fondo fisikoa eta erreperatzeko gaitasuna iza-

tea da. Nik aurreko espedizioan nabaritu nuena hori izan zen, mendiak egunetik egunera gehiago gastatzen zaitu, eta garrantzitsua da erreperatzea. Hortan pisu handia du janariak, alturakoak baino gehiago, beheko kanpamentuetakoak. Aurrekoan, guretzat astunegia zen, eta ez ginen ongi moldatu.

U. Z.: Esan digute Pakistanen nahiko gaizki jaten dela eta he-mentik eramateko gomendatu di-gute.

Altuerara ongi egokituko al garen ez jakiteak kezkatzen digu; ez dakigu nola erantzungo dugun

Altuera horietan zer jaten da?

U. Z.: Bakoitzari ondoen sartzen zaiona. Altuera horietan, erdi gai-xo bezala sentitzen zara, eta behe-angehiegi gustatzen ez zaizun hori goian ez duzu jaten. Pasta asko ja-ten da.

A. L.: Nik denetik jaten dut goian ere. Gorputza egokitzen doan hei-nean ere, jateko gogoa handitzen joaten da.

Horrelako espedizio bat, ekonomikoki garestia da ez?

O. P.: Bai, dezente. Hasieran ba-lesle bila hasi ginen.

U. Z.: Diru aldetik zaila da. Azken batean, gure lehen zortzimilakoa da, eta zaila da babesleak lortzea. Materiala eman digute, baina di-rua gutxi. Gure poltsikotik jarri dugu.

A. L.: Gauza berezi bat egin behar dugu, hau da, bideren-bat ireki edo zer bait, ekonomikoki laguntzeko. Bestela berriz, ezaguna izan behar dugu.

Arriskurik ba al du espedizioa?

A. L.: Bai, baina betikoa da. Gauza asko dira arrisksuak, baita egu-nero errepidera ateratzea ere, bai-na hala ere, joaten gara. Neurriak hartu behar dira.

O. P.: Zortzimilakoek azken batean badute bere konpromezua.

Edozer gauza gertatuz gero, han ez daukazu bila joango zaizun heli-kopterorik. Dena zailagoa da.

U. Z.: Lehendabiziko kanpamen-tura zuk jaitsi beharra daukazu, la-guntzarik gabe. Bestalde, altuerari dagokionean, Nepalen ere ikusi genuen esaterako, nola Almeriako mendialde bati, biriketako edema batek eman zion. Altuerak berak badu bere arriskua, nahiz eta ho-rrelako gauza bat gertatzea zaila dela irudit.

O. P.: Dena den, kanpotik ezber-din ikusten da, eta arrisksutsuagoa dela dirudi.

Zer du mendiak hala ere, horren-beste erakartzeko?

O. P.: Nire ustez, altuerak harrapa-tu egiten du.

A. L.: Altuerak baino gehiago, bes-te helburu berri bat izateak. Gain-dituz joateak.

U. Z.: Bestalde, mendi hauek han-diak eta ikusgarriak dira.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Berastegi.** Basurde Kirol Elkartek XVII. ibilaldi neurtua antolatu du maiatzaren 3rako, Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipulifio, San Lorentzo goz, plazatik 7etan abiatuta. 6, 5-8 ordu. Izen-ematea abiapuntuan edo Zelai tabernara deituz (690 140951), 5 euro.

■ **Ibarra.** Maiatzaren 8an Izaskunen erromeria antolatu du Bizi Nahij jubilatutako elkarteak. 09:30ean oinez abiatuko dira; 11:30ean toka gizonentzat; 12:00etan autobusa; 12:15ean toka emakumeentzat; 13:00etan meza; 14:00etan bazkaria, omenaldia, Los Rubirekin dantzaldia. Izena emateko aukera dago elkartearen.

■ **Tolosa.** Oargi elkartearen bihurtik hilaren 25era, 19:30etik 21:00etara GPS-Internet ikastaroa emango dute. Izena emateko 688 698642 telefonoan edo info@oargi.org helbidean (25 euro).

■ **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak maiatzaren 10ean ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu. Izen-emate Galtzaundiko egoitzan. 11 euro.

Erakusketa

■ **Tolosa.** El Roto komikilariaren *Agua tinta* erakusketa Aranburu Jauregian, Naturaldiaren baitan.
■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jauregian.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Hotel para perros* (haurrentzako filma) eta 19:30ean eta 22:30ean *Slumdog millionaire*. Bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean, *Slumdog millionaire*.
■ **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: 19:30ean *El curioso caso de Benjamin Button*. Bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean, *El curioso caso de Benjamin Button*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Atzerritik nahiz bertatik



ESKOZIA

Aste Santuan Eskozian izan da Enara, eta ondorengo kontatu digu bidalitako argazkiari buruz: «Argazki hau St Andrews-eko katedralaren arrastoetan parte da. Bertako katedrala XII. mendean hasi zen eraikitzen eta garai hartan, Eskoziako eraikuntza handiena zen. XVI. mendeko erreforma erlijiosoaren ondorioz eraso jasan eta erabat suntsiturik geratu zen. Egun, gisa honetako arrastoak daude ikusgai». ENARA ZURIARRAIN (TOLOSA)

GETARIA

Krisek eta bere familiak etxetik gertu izan dira opor egunean. Ondorengo kontatu digu argazkiak: «Krisia dela eta opor hauetan inguruko txokoak ezagutu ditugu. Getariako arratoia askotan ikusi dugu, baina lehenengo aldia izan da igo garelako eta benetan zoragarria izan da. Argazkian ikusten den bezala, nere familia paisaia dastatzen zoratuta gelditu ziren». KRIS VAZQUEZ MEDINA



A Agurrak



Zorionak!

Apirilaren 22an 61 urte ezkondu zirela.
Zorionak eta ondo ospatu eguna.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Zorionak!

Lander Huarte Leunda (Irura). 3. urtebetetzean.
Zorionak, aitona, amona eta osabaren partetik.